



EHMBE SARI BEREZIA JASO DU JUAN MARI BELTRANEK

Juan Mari Beltrani herri musika ikertzen eta hura Soinuenea-Herri Musikaren Txokoa proiektuaren bidez ezagutzera ematen egin duen lanarengatik sari berezia eman dio Euskal Herriko Musika Bulegoa Elkarteak.


Pasa den azaroaren 19an Iruñeko Baluarte jauregian egin zen EHMBE sarien banaketa. Aurten epaimahaian Javier Sagastume soinu teknikari eta ekoizlea, Itziar Larrinaga irakasle eta Musikareko ikerketa koordinatzailea, Jose Miguel Lopez eta Ainhoa Agirre kazetariak, Errege Belda, Suso Saiz eta Kristine Solano musikariak eta François Maton Atabal aretoko zuzendari artistikoa elkartu dira iazko irailaren eta aurtengo abuztuaren artean argitaratutako 71 lanen artean saria merezi zuten bostak bakantzen.

Epaimahaikideek aurtengo sariak Elkano Browning Cream-en *Bor bor*, Atom Rhumbaren *Cosmic lexicon* eta Izaroren *Eason* diskoek, Oreaka TX-k bultzaturiko *Tosta Bandaren proiektuak* eta Gabriel Erkorekaren *Carta blanca* lanek jaso behar dituztela erabaki dute.

Aipatutakoez gain, beste bi sari berezi ere banatu dira. Bata, Etxepare Euskal Institutuak emandakoa, Kalakan taldearentzat izan da; Euskal Herriko musikaren erroak nazioarteratzeagatik.

Bestea berriz, EHMBE Sari Berezia, Soinuenearen sortzaile eta arduraduna den Juan Mari Beltrantzat izan da. Era honetan, Soinuenea Herri Musikaren Txokoa proiektuak islatzen duen hainbeste urtetako ikerketa lana eta herri musika ezagutzera emateko ahalegina saritu eta aitortu nahi izan da.

Hirurogeiko hamarkadan gaur egun Soinuenean topatzen ditugun garai hartako Txistulari aldizkaria aitak harpidetu zuen mutil gazte hark ez zuen orduan abiatu zuen bideak Iruñeko Baluarte jauregira eramango zuenik pentsatu ere egingo. Aldizkari haien ondoan Landaluze bilbotarrak egindako danbolin bat ere jaso zuen, bere anaia Bixentek bezala. Ale bakan haiek



Juan Mari Beltran saria eskertzen. SNN

ondoan liburu, disko eta bestelako argitalpen gehiago hartzen joan ziren.

Juan Mari Beltranek Argia dantza taldeko soinulari moduan eman zituen urteetan argitaratuta ez zeuden, baina herrietan ezagutzen ziren, dantza haien bilketan ere lana gogotik egin zuen. Juan Antonio Urbeltzek pauso eta koreografiak biltzen zituen bitartean berak Argiako gainontzeko musikariekin batera jo behar zituen doinu eta erritmoak entzun eta hartzen zizkien Euskal Herriko bazter ezberdinetako gizon eta emakumei. Ordukoak dira Soinuenean dauden hainbat zinta, 1968ko otsaileko Barkoxeko maskara-

dan Pierre Copain Mauletarra, Pierre Ager “Garat” edota Etxahun Iruri bezalako pertsonaien sorkuntzen testigantza jasotzen duena adibidez. Bitartekoak ugaritu ahala audioaz gain filmatzen ere hasi zen.

Argitalpen, landa lan, soinu-tresna eta irudiz osatutako bilduma hura lehenik lagunekin elkarbanatu zuen eta handik sortu zen gaur egun Soinuenea Herri Musikaren Txokoa sortzeko ideia.

Juan Mari bildua zuen ezagutza Hernaniko musika eskolako irakasle bezala zabaltzen bazuen, Oiartzunen dagoen Soinuenearen sorrerarekin bide berri bat ireki zuen.

Soinueneak, bere sorreran Herri Musikaren Txokoa, hasieratik herri musika bizirik dagoen kultur aldaera moduan erakutsi du, inoiz ez kaxa batean aldaezin mantendu beharreko iraganeko oroitzapen moduan. Eta hala, Soinuenea kultura unibertsalaren euskal esparrua besteen ondoan ezagutu eta ezagutarazteko proiektua da. Horregatik jarraitzen du kontzertuekin, tailerrekin, jardunaldiekin, herri musika eskolekin eta argitalpenekin.



Sarituak, ekitaldiko musikari eta antolatzaileekin. SNN

HERRI MUSIKA KONTZERTUAK

UDAZKENEKO KONTZERTUA

2018ko abenduaren 16an - 18:00 - Oiartzungo Udaletxean - 5 euro

FOLKETAN (Bizkaia)



Sestaoko hamaika musikari bildu ziren 2010. urtean, kultur elkarte desberdinetatik etorrira, Bizkaiko udalerrri horretako X. MUSIKALE jaialdian parte hartzeko asmoz. Sestaoko Udalak antolatzen duen kale-musikako jaialdi horretan jatorri desberdineko musikak entzuteko aukera izaten da.

Arrakasta handia izan zuen esperientziak eta berebiziko interesa piztu zen lagun haiengan. Hala, ekimenari jarraipena emanaz eta musika-kultura desberdinen bilgune gisa FOLKETAN taldea sortu zuten.

Izan ere, taldearen musikan estilo desberdinak uztartzen dira. Oinarria Euskal Herriko musika tradizionalan, baita Galiziakoan ere, du. Baina inspirazio iturriak bestelako kultura eta musiketan bilatzeko eta ekarpen horiekin errepertorioa aberasteko, hala nola musika zeltan, Erdialdeko Europa-

koan, Eskandinaviakoan, bluegrass eta abarretan, atak irekita ditu taldeak.

Denboraren joanean, elkarrekin lan eginez, norberaren ezagutzak besteekin partekatuz, aurrera egin du taldeak piezak sortu eta moldatzeko lanean. Horren erakusgarri 2017an burutu dituzten bi lanak: batetik, taldearen lehen diskoa, "Hamaika entzuteko!", Gaua estudioan grabatua; bestetik, Sestaoko erraldoien konpartsarekin grabatutako "Biraka ari" CD-DVD lana.

Hainbat tokitan izan dira jotzen: Arabako Audio Folk jaialdian, Sestaoko jaietan, Galiziar Letren Egunean eta Magostoetan, Portugaleteko Ibilaldian, Barakaldoko Herrien arteko Folklore Jaialdian, eta Bizkaiko beste udalerrri batzuetan ere. Durangoko Azokan ere aurkeztu zuten taldearen grabazioa, 2017ko abenduan, eta

2018ko urtarrilean Mallorcako Pollença herriraino iritsi ziren, lan berbera aurkeztera, bertako Xeremiers Orats taldearekin batera egin zuten kontzertu berezi batean.

Gaur egun, lagun hauek osatzen dute Folketan taldea:

·Javier Ortiz de Zarate: boza, alboka, zarrabetea, uilleann pipes, txirula, ttuntuna, txanbela, whistleak.

·Luis Zulueta: gitarra akustikoa, boza.

·Ramiro Lamas: gitarra akustikoa eta elektrikoa, boza.

·Nerea García: biolina.

·Gorka Agirregabiria: bajo, pandero.

·Xurxo Gago: bateria, kaxoia, bodhran eta bestelako perkusioak.


·Fernando Baños: txistu eta txirula.

·Aitor Gorostiza: whistleak, txirula, harmonika, flauta, tarota & panderoa.

·Julen Murga: eskusoinua.

BUFALODRE

(Catalunya)



Daniel Carbonell
tarota

Francesc Sans
sac de gemecs

Iris Gayete
flabiol, tamborin

TOCA FESTA!!!!

Festa, bere zentzu zabalenean, gizatalde guztien nortasuna osatzen duten elementuetako bat da. Katalunian festak biziak, hotsandikoak, koloretsuak, argiz, suz, dantzaz eta musikaz beteak dira. Festako protagonista ugarien arteko batzuk oharkabean pasa daitezke. Horren adibide dira herri musikako musikariak. Garai guztietan ordezka ezinak, beraien historia gure herri kulturaren, edo haren zati handi baten, historia bera da. Beraiekin, beraien soinu-tresnei, errepertorioari eta festari leial, dirau eta gure garaira iritsi da gure kultur ondarearen ordezkaezinezko zati bat.

Toca Festa!!!! soinu-tresnen ezagutzan, errepertorioan eta herri musikak Katalunian bete dituen funtzioetan barneratzen laguntzen digun kontzertua da. Soinu-tresnen beraien eta musikarien bidez bata bestearen atzetik azalduko dira ezagutza horiek. Flabiola eta danborra, sac de gemecs, tarota eta haiekin jos daitezkeen talde herrikoiezberdinak ikusiko ditugu.

Bufalodre Valls hirian 1994an sortu zen. Gaur egun Camp de

Tarragonako hainbat musikaririk osatzen dute. Eskualde honetan ohiturak eta festak oso biziak dira. Eta oraindik gutxi ezagutzen diren, eta inguru tradizionaletik kanpo gutxitan jotzen diren, bitxikeria musikalak gordetzen dira bertan. Musikan txikitatik murgilduak, talde honetako kideek urteak daramatzate interpretatzeko erak, asko fosilizatu eta ahaztuak, lantzen, ikertzen eta biltzen. Hortik abiatuta zenbait doinu birlandu dituzte XX. mendeko biztanleentzat egokituz, aspaldi ahaztu den musika egiteko era bat biziartzeko.

Taldeko kideak irakaskuntzan ere aritzen dira. Gaur egun *ESMUC*, Reuseko *Aula de Sons*, Vilafranca del Penedèsko *EMM Maria Dolors Calvet*, Tarragonako *EMMT* edota Vallseko *Espai Trad* guneean irakasle edo zuzendari aritzen dira.

Interes bereziko bezala izendatuta dauden ohiturazko festetan (Reus, Tarragona, Valls, Sitges, l'Arboç, Vilafranca del Penedès, Barcelona...) ohikoak dira musikari hauek, baita ikutu herrikoioagoa dutenetan ere. Beraien moldakortasuna dela eta entremes ugari laguntzen aritu dira: Vilafrancako *Ball de Pastorets*, Tarrago-

nako *Ball de Valencians*, Vallseko *l'Àliga*, Barcelonako *Drac*, Reuseko *Ball de Prims*, etab.

Egoera musikal eta instrumental ezberdinetara egokitzeko duten gaitasuna dela eta, Bufalodre taldea kale, enparantza eta oholzetan antolaketa ezberdineko taldeetan ikus dezakezue beraien sonu-tresnekin: *mitja cobla*, *tres quartans*, *cobla de ministriles* edo gralla taldea.

Castilla, Madril, Balearrak, Valentzia, Andaluzia, Galizia, Portugal, Frantzia, Alemani, Italia eta leku gehiagotan jo dute. Toni Xuclà, Kepa Junkera, Mercedes Peón, Carlos Beceiro eta Carlos Núñez bezalako musikariek aritu dira eta hainbat disko eta liburu dituzte argitaratuta.

kontzertu honen
laguntzailea:



XIROLARRUA OIONEN

Oiongo 1662ko kontuen erregistroan “*ssettenta y ssiete reales que le dyeron al gaytero por ssu trabajo de tocar la bota para el festexo de la concepcion*” jartzen du. Geroztik urte asko pasa dira eta Oiongo zaharrenek ere ez dute gogoratzen bertan xirolarrua inoiz jo izan denik.

Oiartzungo Herri Musika Eskolan eta Alberiteko (Errioxa) Escuela de Gaita y Tambor-en xirolarrua ezagutu eta ezagutzera emateko egiten den lanarekin jarraituz, eskoletako arduradunak Oiongo kultur eragileekin harremanetan jarri ziren Arabako herri horretako kaleetan xirolarrua berriro entzuteko aukera proposatzeko.

Horren ondorioz, Oiongo Irule Kultur Elkarteak Alberiteko Escuela de Gaita y Tambor eta Soinuenearekin azaroaren hamaikan Oionen izan zen Xirolarru Joleen Topaketa antolatu zuen. Xirolarru joleek, txistulari eta dantzariekin batera egin zuten kalejirarekin hasi zuten topaketa eta ondoren herriko Plaza Nagusian xirolarru joleen emanaldia izan zen Irule Kultur Elkartearen txistulari eta dantzarien laguntzarekin.



Topaketa iragarri zuen kartela. SNN

SOINUBERRI ESKURAGARRI

Herri Musikaren Jardunaldietan aurkezten ziren lanen argitarapena garai batean Herri Musika Bildumako liburuetan egiten genuen, baina azken urteetan geldiduta zegoen.

Horri segida emateko asmoz, lan talde berria osatu dugu eta paperetik sarera salto egin dugu Soinuberri publikazio berriarekin. Bertan Jardunaldietako aktak eta herri musikarekin lotutako artikulua argitaratuko dira.

Irailetik Soinuenearen web orrian libreki eskura daitekeen Soinuberri 11 zenbakian Herri Musikaren 8. eta 9. Jardunaldietako aktak eta Carolina Iborrek egindako lan bat daude.



JARDUNALDIAK MARTXOAN

Martxoaren 16 eta 17ko astebururako programatu dira hurrengo Herri Musikaren Jardunaldiak.

Hemezortzigarrenak izango diren jardunaldi hauetan haur eta helduak erakartzen, eta aldi berean akaso beldurtzen, dituzten erraldoi eta buruhandiei buruz hitz egingo da. Izan ere, festetan musikariz inguratuta ikusten ditugun pertsonaia horiek izan dute hasieraren bat, baita helburu, funtzio edo mugitzeko era bat.

Soinuena eta Soinuena Lan Taldeako kideak buruhandi eta erraldoien inguruan lanean aritu diren bazter ezberdinetako ikerlariekin bildu dira gaia interesatzen zaion jendeari ahalik eta egitarau osoena eskaintzeko asmoz. Behin behineko egitaraua Euskal Herriko eta Kataluniako ekarpenak ageri dira. Hizlarien artean izango dira Roldan Jimeno Aranguren historialari eta antropologo nafarra eta Bienve Moya etnologo kataluniarra.



Erraldoiak Xanistebanetan. Oiartzun, 2018-08-02. SNN

BISITARI KOPURUA

Azken hiru hilabeteetan: bisitari kopurua: 481

Antolatutako taldeak: 23

Bisitari kopurua abendura arte: 60.270

WEB ORRIRA BISITAK

Azken hiru hilabeteetan: 19.492

Soinuena - Herri Musikaren Txokoa

Tornola kalea, 6 - 20180 OIARTZUN

Tel / Fax 0034 943 493 578

soinuena@soinuena.eus

www.soinuena.eus



OIARTZUNGO
UDALA